

EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAN OINARRITUTAKO TOKIKO GARAPENA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN KASU AZTERKETA

Tesiaren egilea: Pablo Arrillaga Márquez

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)

Saila: Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua (GEZKI)

Tesi-zuzendaria: Enekoitz Etxezarreta Etxarri eta Aitor Bengoetxea Alkorta

Tesiaren laburpena:

Tesi honek tokiko garapenaren eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren (ESS) arteko harremanetan sakondu nahi du, ondoren EAEko egoerari begiratzeko. Izan ere, bi mundu horien artean harreman argiak suma daitezkeen arren, praktikan ezin da erraz antzeman elkarlan jarraitu eta egonkorrik.

Tokiko garapenak XX. mendeko azken herenetik lurraldeetatik abiatutako garapen ekonomikorako estrategia ezberdinak biltzen ditu, biztanleriaren bizi-kalitatea hobetzeko asmoz lurraldean egiturazko aldaketa bat aurrera eramatera bideratuta daudenak. ESSak, bere aldetik, beharrian ezberdinen gainean (lana, kontsumoa, etxebizitza, finantzaketa, hezkuntza, ingurumena, kultura, etab.) eragiteko, autogestioan eta demokrazia ekonomikoan oinarritutako hainbat antolakunde kolektibo biltzen ditu.

Tokiko garapenak eta ESSak, beraz, hainbat elementu partekatzen dituzte. Besteren artean, beharrak asetzera edo tokiko biztanleriaren bizi-kalitatea hobetzera bideratutako esperientzia kolektiboak izatea, behetik, hots, lurraldeetatik abiatzea eta egunerokotasunean eragitea. Hala ere, noraino heltzen dira harreman horiek? Ikuspegi bakarra dago? ESSak birpentsa dezake tokiko garapena? Praktikan ikus daiteke teorikoki hain antzemangarria den gerturatze hori? Zertan ari dira, zentzu honetan, EAEko tokiko garapenerako zein ESSko eragileak? Tesi honen bitartez galdera horiei erantzuten saiatu gara.

Gure ikerketatik ondoriozta dezakegu ESSak birpentsa dezakeela orain arte aurrera eraman izan ohi den tokiko garapena. Kapitalaren metaketarako baldintza egokienak lurraldeetan sortu dituzten eta lehiakortasun globalaren markoan nazioarteko merkatuetan lurraldeen integrazioa bilatu izan duten tokiko garapenerako ereduaren aurrean, pertsonak garapen-ereduaren erdigunean jartzen dituen eredu propio, endogeno, integral, plural eta autozentratua sortzen lagundu baitezake, gaur egungo egiturazko krisiaren testuinguruak ezartzen dituen muga eta erronka

ekologiko, sozial, politiko eta ekonomikoei aurre egiten lagunduz. Izan ere, ESSan oinarritutako tokiko garapenak pertsona guztientzako bizitza bizigarriak eraikitzen lagundu dezake lurralde bizigarriagoetan.

Hau da, kapitalaren erreprodukziorako lurralde onuragarriak sortzea helburu izatetik, lurralde bizigarriak sortzen lagundu dezake tokiko garapenak, ESSan oinarritzen bada. ESSak, bere izaeragatik, biztanleriaren beharrian materialak asetzeko sortuak izateaz gain, ekoizpen-, kontsumo-, etxebizitza-, finantza-...-harreman kapitalistak eraldatzeko gaitasuna erakusten du, antolakundeen jabegoa, kontrola eta helburua langileek edo bazkideek —eta ez kapitalak— zehazten dituzten heinean. Hots, ESSan oinarritutako ehun kooperatibo-komunitario batean, komunitatea (langileak, erabiltzaileak...) da ekoizpen, kontsumo, finantza, etxebizitza eta halako baliabideen jabea. Eta, beraz, garapena pertsonen inguruan eraikitzea ahalbidetzen du; eta pertsonak lurraldean dauden heinean, garapena ere lurraldean errotzen da.

Horrenbestez, ikuspegi eraldatzailea duen garapen-eredu honek bestelako eredu sozioekonomiko bat proposatzen du lurraldeetarako:

- lehiakortasun globalean oinarritutako lurraldeen arteko norgehiagoka sustatu ordez, lurraldeen arteko harreman harmonikoagoak eta lurraldeburujabetza(k) sustatuz,
- espekulazioa erreproduzitzen ez duen eta ekonomia errealean oinarritzen den eredu bat sustatuz,
- planifikazio ekonomikoa herritarren beharretara egokituz, eta ez kapitalaren metaketarako baldintzen arabera,
- eta klase-desparekotasunak ezabatzen dituen eredu bat aurrera eramanez, non ekoizpen-baliabideen sozializazioaz gain, lana, baliagarritasun soziala duten ondasun eta zerbitzuetara bideratzen den, mozkin-asmoaren gainetik.

Alabaina, EAEn, gaur-gaurkoz, salbuespen konkretu eta txiki batzuk kenduta, ez dago ESSa oinarritzat hartzen duen tokiko garapen-eredurik. Bi mundu hauetako eragileak pixkanaka ezagutzen ari diren arren eta etorkizunean pixkanaka pausoak ematen jarraituko dela pentsa dezakegun arren, oraindik ere ESSak hesi asko gainditu behar ditu tokiko garapenerako agentzien egitasmoetan indarrez barneratzeko.